


La prova d'ús de la llengua constarà de dos exercicis diferents; en el primer la persona candidata haurà de completar seleccionant, per a cada pregunta, la resposta correcta, i en el segon, en canvi, la persona candidata haurà de completar la paraula en negreta amb el sufixe adequat, fent els canvis pertinents.

Lehenengo testua: Aukera ezazu erantzun zuzena.

SOLTEROAK:

	<p><u>SOLTEROAK:</u></p> <p><u>--0-- (adibidea) klase sozial indartsua</u></p>
---	--

Ez kongabeak beti egon dira, edozein --1-- *Neskazaharrak* eta *mutilzaharrak* nonahi eta noiznahi. Baina dirudienez, edo komunikabideek diotenez, inoiz ez dira orain beste egon. Eta inoiz ez dute oraingoa bezalako bizimodu aske eta eroso izan. Lehen baztertuak eta kritikatuak, orain askotan goraiatuak. Euren bizimodua ezagutu nahi izan dugu.

Ezer baino lehen zertaz ari garen --2--: ez kongabeez ari garenean ez gara ezkontzaz ari, bikotekidea izateaz baizik. Jakina baita gaur egun ezkonduak ez dauden bikote asko etxe --3-- bizi direla. Bakarrik bizi eta bikotekiderik ez dutenei buruz mintzatuko gara hemen. Bridget Jones edo Sex in New York bezalako film eta teleailek erakutsi dizkiguten gazte-heldu independente horiek izango ditugu hizketagai. Klase sozial berri bat sortu dela diote batzuek: singleak, banakakoak edota bakoitiak deiturikoa. Estatistiketan, bakarrik bizi diren 25 eta 60 urte --4-- pertsonak sartu ohi dituzte zaku horretan. Horien artean, hala ere, mota askotakoak daude: bananduak edo dibortziatuak, alargunak eta --5-- ez kongabeak.

Singleak

Single hitza AEBetan sortu zen. New Yorken esaterako, hamarretik zazpi etxebizitzatan lagun bakarra bizi da. Europan horrelako 46 milioi etxe daude. Joera orokorra da, baina ezin da orokortu, Isabel Larrañaga EHuko Soziologia irakasleak -
-6-- . Europa iparraldean gazteak bakarrik bizitzera joan ohi dira, tradizio handia dago. Euskal Herrian, egin diren --7-- arabera behintzat, ezin da horrelako fenomeno batez hitz egin. Gurean, familiaren tradizioak pisu ikaragarria du oraindik eta etxebizitzaren salneurriak eragin izugarria. "*Bakarrik bizitzea trantsizio egoera bat da hemen, bikotekidea izan, bikotekidearekin --8-- jarri edota familia izan artean, baina gutxi dira bakarrik bizitzea erabaki eta egiten dutenak. Hemen behin-behinekoa da bakarrik bizitzearena. Europa iparraldean, --9-- , erabaki baten ondorio da*". Mediterraneoan zonalde guztian gertatzen da Euskal Herrian bezala. Beraz -
ulertarazi --10-- Larrañagak- kontuz ibili behar da iragartzen diren "*fenomeno*"

hauekin. Horrelako etxeak 1981ean EAEn %7,7 ziren; 2001ean %20,3. Baina bakarrik bizi direnen kopurua, batik bat, zahartzaroan da handia, eta gehienbat, emakume alargunei dagokie.

Egoismoa

Singleen fenomeno deitzen duten honen arrazioen artean, hainbatek egoismoa aipatzen du, hau da, inor jasateko ezintasuna. “Ez dut uste orain gutxiago --11-- . Zerbait izatekotan, aukera diferenteak aurreikusten ditugula --12-- . Aukera horien artean ez da sakrifizioa edo errutina sartzen”. Aldi berean, beste faktore batek ere badu zerikusia bikotea ez izatearekin: bikotekidearengandik askoz gauza gehiago espero ditugu orain, eta produktua azkarrago agortzen dugu. Orain egoera zibilak ez du garai bateko esanahirik: ezkondu edo ezkongabe --13-- ez du benetan norberaren egoera adierazten. Gaur egungo eredia “segidako monogamiarena” da. Eta tartean, bakarrik bizitzeko une ugari daude.

Klase kontsumista berria

Bilatzen hasita harrিতa geratzen da bat ezkongabeei bideratuta asmatu dituzten ekintzekin. --14-- , Parisen, 1985ean egin zen Lehenengo --15-- Saloia. Bertan ezkongabeei zuzendutako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dira, eta aldi berean, produktu eta zerbitzu horiek publizista eta ikerlarien ikerketen iturri dira. Bartzelonan, 2005ean egin zen lehenengo aldiz Singles Saloia (www.salonsingles.net). Gaur egun, arlo hau lantzen duten beste hainbat web gune martxan dira.

	adibidea	b) konplexurik gabeko	c) konplexuak gabeko
0	a) konplexurik gabe		
1	a) etxeetan	b) etxean	c) etxetan
2	a) argi gaitezen	b) argitzen dugun	c) argi dezagun
3	a) bertan	b) berdinean	c) berean
4	a) bitarteko	b) bitartean	c) bitarte
5	a) ibilbide luzearen	b) ibilbide luzeko	c) ibilbide luzean
6	a) esan diguna	b) esan digunez	c) esana baita
7	a) ikerketen	b) ikerketak	c) ikerketaren
8	a) biziz	b) bizi zarela	c) bizitzen
9	a) ordea	b) esate baterako	c) alegia
10	a) gaitu	b) digu	c) du

11	a) jasaten dugula	b) jasaten dugunik	c) jasatea
12	a) esan beharko genuke	b) esan beharko genukeen	c) esan beharko zen
13	a) izan	b) zarela	c) izateak
14	a) Hobeto esanda	b) Funtsean	c) Esaterako
15	a) Ezkongabeentzako	b) Ezkongabeentzat	c) Ezkongabearentzat

RESPUESTES:

- 1.c
- 2.c
- 3.c
- 4.a
- 5.b
- 6.b
- 7.a
- 8.c
- 9.a
- 10.b
- 11.b
- 12.c
- 13.c
- 14.c
- 15.a

Bigarren testua: Beltzez dauden hitzetan jar ezazu dagokion ATZIZKIA eta egin itzazu behar diren aldaketak. Gogoratu multzo hutsak (Ø) ere balio duela.

1. NIRE GORPUTZA DISKOAREN AURKEZPENA

Mara-mara argitaletxearen lehen alea dugu hau. Zigiluaren asmoa **haurrak**_____ musika plazaratzea izanik, ondo baino hobeto hasi dira. Gorputzeko atal bakoitzak (begi-niniak, gerria, ahoa, bizkarra eta baita ipurmasailak ere) Juan Kruz Igerabidek **idatzi**_____ poesia lan ederra dauka eta Jabier Muguruza haietako bakoitzari musika **idatzi**_____ arduratu da, eta grabazioa eta produkzio lanak Mikel Azpiroz lagunak hartu ditu. Ez dago esan beharrik haurrek atsegin handiz hartu dutela Muguruzaren egitasmo berri hau.(...)

Berria

2. FRÁGILES FILMA

Eserlekura itsatsirik utziko zaituen filma, **ikusi**_____ merezi duen horietakoa. Beldurra eta misterioaren nahasketa perfektua du pelikulak

eta tentsioa istorio osoan zehar mantentzea lortzen du. Haurren ospitaleko bigarren solairuko misterioak jakin-mina sortuko dizu nahi ez baduzu ere eta istorioak harrapatuko zaitu.

3. METAMORFOSIS DISKOAREN AURKEZPENA

Gauzak gogoz egiten direnean azken emaitzan nabaritzen da. Zuzen_____ diskoak beharrezkoak diren ala ez alde batera utzi_____, Doctor Deseok aspaldi zuen berea merezia. Hau beharrak betetzen dakien lana da. Beharrezkoa zen ke artean jasotzea, kabaret giroan, eta Bilbon, Arriaga Antzokian.

4. BIUTIFUL FILMA

Guillermo Arriagarekin aurreko hamarkadako bikoterik emankorrena egin zuen Alejandro Gonzalez Iñárrituk; Arriagak denboraren linealtasuna hausten zuen, istorio poetikoak **idatzi**_____, eta Gonzalez Iñárrituk istorio horiek irudi **eder**_____ bihurtzen zituen (...).

Berria-tik egokitua

RESPOSTES:

haurrak→haurrENTZAKO
idatzi→idatziTAKO
idatzi→idazTEAZ

ikusi→ikusTEA

zuzen→zuzenEKO
utzi→utziTA

idatzi→idatziZ
eder→eder